



KABLE BIDEZKO GARRAIOAREN LEGE-AURREPROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA

Aurrekarien deskribapena eta arau-ekimenaren justifikazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoan, horrelako hainbat instalazio daude gaur egun, eta orain arte Estatuko legeriak arautu ditu -16/1987 Legeak, uztailaren 30ekoak, Lurreko Garraioaren Antolamenduari buruzkoak, eta, zehazkiago, 4/1964 Legeak, apirilaren 29koak, Teleferikoen emakidari buruzkoak, eta 673/1966 Dekretuak, martxoaren 10ekoak, hura aplikatzeko erregelamendua onesti zuenak-; hala ere, egun ez dira nahikoak, garraio-sistema horrek azken urteetan izan dituen berrikuntza teknologikoen ondorioz. Berrikuntza horiek 2016/424/EE Erregelamenduan, 2016ko martxoaren 9koan, pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioei buruzkoan, 2000/9/EE Zuzentaraua indargabetzen duenean, jaso dira.

Hori dela eta, beharrezkoa da pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioen eraikuntza eta ustiapena Euskadin arautuko duen lege-mailako arau bat izatea, Euskal Autonomia Erkidegokoak baitu ibilbide guztia Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten kable bidezko garraioen arloko eskumena, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, abuztuaren 25eko 2488/1978 Errege Dekretuaren 13. artikulua araberak. Dekretu horrek apirilaren 29ko 4/1964 Legeak eta hori garatzeko xedapenek araututako kable bidezko garraio-zerbitzuak -publikoak nahiz pribatuak- emakidan eman, baimendu, ustiatu eta ikuskatzeari buruzko eskumenak Euskal Herriko Kontseilu Orokorrari transferitu zizkion.

Euskal Autonomia Erkidegoan egun hainbat instalazio motak egitura juridiko eta aplikazio-araudi tekniko desberdina dute. Alde batetik, funikularrak daude; 16/1987 Legeak, uztailaren 30ekoak, Lurreko Garraioaren Antolamenduari buruzkoak, eta hura garatzen duen erregelamenduari men eginez, trenbidezko garraioari buruzko araudiari atxikitzen zaizkio, nahiz eta, trakzioari dagokionez, kable bidezko garraioaren araudia aplikatzen zaien, alegia, arestian aipatu den 2016/424 (EB) Erregelamendua, 2016ko martxoaren 9koa.

Bestalde, badira zerbitzu publikoko igogailu batzuk ere, emakida-erregimenean ustiatzen direnak. Emakida hori aurreko mendearen erdialdean eman zitzaizen obra publikoen legeriari jarraikiz, eta haien araudi teknikoa 2014/33/EE Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak, igogailuei buruzkoak, eta 203/2016 Errege Dekretuak, maiatzaren 20koak, osatzen dute. Nahiz eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, ez diren beren-beregi kable bidezko garraio-azpiegiturak, ustiapen-erregimenari dagokionez, 4/1964 Legea, apirilaren 29koa, teleferikoei buruzkoa eta hori garatzeko xedapenak aplikatu zaizkie. Zerbitzu publikoko igogailu horiez gain, badira erabilera publikoko beste batzuk, udalek hiriko eremu berezietan, jartzen dituztenak erabiltzaileen irisgarritasuna laguntzeko; horiek ere arestian aipatutako igogailuen araudi teknikoaren mende daude.

Donostia 1 - Tel. 945 01 96 54 - Faxa: 945 01 98 56 - 01010 Vitoria-Gasteiz



Igogailu horiek hiriko beharrei soilik erantzuten diete eta, ondorioz, udalen erantzukizunekoak izan behar dute, horiek beren udalerriko mugikortasuna eta bertan bizi direnen mugikortasun-beharrak ikuspegi integraletik ezagutu eta kudeatzen dituztelako. Igogailu horiek ez dira lege honetan biltzen, nahiz eta Bigarren Xedapen Iragankorrean berariazko aipamena egiten zaien. Horrela bada, aplikazio-araudi teknikoaren irizpidea jarraitzen da, alegia, igogailuak ez direla kable bidezko garraio-instalazioak.

XII. Legegintzaldiko (2020-2024) Legegintza Egutegiak, Gobernu Kontseiluak 2020ko azaroaren 10ean egindako bilkuran onetsi zenak, ez du beren-beregi barne hartzen orain izapidetzen den kable bidezko garraioaren lege-proiektua; baina ebatzi da egokia eta bidezkoa dela kable bidezko garraioa lege-mailako araubidez erregulatzea, aipatu legegintza-egutegian jasota datorren mugikortasun jasangarriaren lege-proiektutik berezituta.

Proposatutako arauketaren edukia.

Horrela bada, lege-aurreproiektu hau lau kapitulutan banatzen da kable bidezko garraio-instalazioei aplikatu beharreko erregimenaren hainbat alderdi jorratzeko.

I. kapituluak, «Xedapen Orokorrak», legearen xedea, aplikazio-eremua eta helburuak, instalazioek ematen duten zerbitzuaren izaeraren nahiz lurralde-esparruaren araberako sailkapena, eskumen-araubidea, instalazioek bete beharreko segurtasun-baldintzak, erregistroa eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak arautzen ditu.

Aplikazio-eremuari dagokionez, lege honek arautzen dituen kable bidezko garraio-instalazioak zerrendatu dira, egun badaudenak (funikularrak) nahiz etorkizunean ezar daitezkeenak (teleferikoak, teleaulkiak, etab.). Kanpo uzten diren instalazioak ere adierazten dira. Ildo horretan, aipatu 2016ko martxoaren 9ko 2016/424/EE Erregelamendu horren 2. artikuluan datorren zerrenda hartu da erreferentziatzat, erregelamenduaren 2. artikuluan horren 2.b. apartatuan aintzat hartzen diren ondare historiko edo kultural moduan sailkatuta dauden instalazioak izan ezik, haiek ere ez baitira lege honen aplikazio-esparrutik kanpo geratzen. Igogailuei dagokienez, oro har, lege honen aplikazio-eremutik kanpo uzten badira ere, aurreikuspen berezia egiten da orain arte emakida bidez ustiatu diren zerbitzu publikoko igogailuen inguruan; dagokien udalerriko udalaren eskumenekoak izango dira, hirikoak soilik direlako eta hiri-irrigarritasuneko beharrei erantzuten dietelako.

Eskumen-araubideari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren eskuduntzak mugatu egiten dira. Jaurlaritzari dagokio legea arau bidez garatzea eta koordinatzea, bai eta hiriarteko eta berrogeita hamar mila biztanle edo gutxiagoko udalerrietako kable bidezko garraio-instalazioak antolatu, kudeatu, ikuskatu eta zehatzea ere.

Bestalde, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, aipatzen dituen subsidiarioritasun- eta proportzionaltasun-printzipioei men eginez, berrogeita hamar mila biztanletik gorako udalei esleitzen zaizkie hiri-eremuko kable bidezko garraio-instalazioak ezarri, antolatu, kudeatu, ikuskatu eta zehatzeko ahalmenak.

Lege honen xede diren instalazioen baldintza teknikoei eta segurtasunekoiei dagokienez, sektoreko legeriara igortzen da berariaz. Ildo horretan, Autonomia Estatutuaren 10.32

artikuluak kable bidezko garraioan EAeri esleitzen dizkion eskumen eskusiboak, 2016/424 (EB) Erregelamenduak, 2016ko martxoaren 9koak, kable bidez pertsonak garraiatzeko instalazioei buruzkoak, xedatzen duenaren eraginpean daude. Ildo horretan bertan, soilik gehitu behar da igogailuei buruzko araudi teknikoa eta segurtasuneko 2014/33/EB Zuzentarauan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenean, 2014ko otsailaren 26koan, igogailuen eta igogailuen segurtasun-osagaien alorrean estatu kideen legeriak harmonizatzeari buruzkoan, eta 203/2016 Errege Dekretuan, maiatzaren 20koan, igogailuak eta igogailuetarako segurtasun-osagaiak merkaturatzeko funtsezko segurtasun-betekizunak ezartzen dituenen datorela eta, bere kasuan, aplikatuko zaiela lege honen Bigarren Xedapen Iragankorrean aipatzen ditugun zerbitzu publikoko igogailu haiei.

II. kapituluak, «Instalazioaren eta ustiapenaren administrazio-araubidea», hiru atal ditu. 1. atalak zerbitzu publikoa betetzen duten garraio publikoko instalazioak arautzen ditu eta instalazio horiek ezarri eta zerbitzuan jartzeko prozedura finkatzen du. Aurrez, proiektu bat onartu beharko da, bai eta ustiapen-erregimena ere, eta kontratuaren araubide juridikoari dagokionez, sektore publikoko kontratazioa arautzeko legeriara igortzen du. 2. atala zerbitzu publikorik ematen ez duten garraio publikoko instalazioei buruzkoa da. Instalazio horiek ezarri eta ustiatzeko baldintzak arautzen ditu, eta horretarako aurrez administrazioaren baimena eduki beharko dela ezarri. 3. atalak garraio pribatuko instalazioak arautzen ditu eta aurreko atalean ezarritako prozedurara igortzen du, egoki diren aldaketak eginda. Horren inguruan esan behar da kable bidezko garraioari aplikagarria zaion sektore-araudiak lehenetik ere alde aurretiko baimen administratiboa edukitzera behartzen zituela instalaziook; eta, beraz, ez dela baimen berri bat.

III. kapituluak, «Instalazioak ikuskatzea eta kontrolatzea», arautzen du administrazio-organo eskudunek baliatuko duten ikuskaritza-araubidea, legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera. Esan nahi baita instalazioetan behar diren ikuskapenak eta arauzko probak egiten direla, haien zaintza eta mantentze-lanei dagokien guztian behar diren jarduketak egiten direla ziurtatzeko, bai eta zerbitzuak zein baldintzatan ustiatzen eta egiten diren kontrolatzeko ere.

IV. kapituluak biltzen ditu lege-hausteak, haien tipifikazioa, erantzukizuna eskatzeko administrazio-prozedura, eta egoki bada ezarri beharreko zehapenak; eta, zehapenak ezartzeko prozedurari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahalmena arautzen duen legerian xedatutakora igortzen du. Adierazi behar da, arau-hausteen tipifikazioari eta zehapenen zenbatekoari dagokienez, arlo bereko beste legeria batzuen irizpidea jarraitu dela.

Azkenik, arau-xedapenaren azken zatian xedapen gehigarri bat, lau xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat bilbatzen dira.

Horien artean, Bigarren Xedapen Iragankorra azpimarra dezakegu, egun badauden eta emakida administratiboan ustiatu diren zerbitzu publikoko eta hiriguneetako igogailuei erreferentzia egiten diena. Aipatutako xedapen iragankor horrek ezartzen du igogailu horiek dauden udalerrietako udalak subrogatuko direla Eusko Jaurlaritzan, emakida-erakundea den aldetik. igogailuek ematen duten zerbitzua ez baita hirikoa besterik. Bilboko Arangoitiko, Begoñako eta Solokoetxeko igogailuei eragiten die.

Irizpide hori bera erabiltzen da Hirugarren Xedapen Iragankorrean, egun 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan dauden eta emakida administratiboan ustiatu diren zerbitzu publikoko funikularrei buruzkoan. Aipatutako xedapen iragankorrak ezartzen du udalak izango direla erakunde emaile, Eusko Jaurlaritza beharrean, eta emakida horiek lege honetan ezarritako araubide juridikoaren mende geratuko direla. Horren eraginpean daude Igeldoko Funikularra, Donostian, eta Artxandako Funikularra, Bilbon.

Oinarriak eta bideragarritasun juridiko eta materiala.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena

Lege-aurreproiektua egingarria da juridikoki zein materialki, hain zuzen Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.32 artikulua xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa baitu, besteak beste, lurreko garraioetan, trenbidetan eta haien bidezko garraioetan, baita kable bidezko garraioetan ere; eta haien transferentzia gauzatu baitzen 2488/1978 Dekretuaz, abuztuaren 25ekoaz, eta 1446/1981 Errege Dekretuaz, ekainaren 19koaz.

Eskumen organikoa:

18/2020 Dekretuak, irailaren 6koak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 11.1.i) artikuluan, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari esleitu zizkion Euskal Autonomia Erkidegoaren lurreko, itsasoko, ibaiko eta kable bidezko garraioen alorreko funtzioak, jarduera-alorrak eta jarduketak.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren barnean, eta 11/2021 Dekretuari, urtarrilaren 19koari, haren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoari, men eginez, Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetzak esleituta dauzka lurreko, itsasoko, ibaiko eta kable bidezko garraioei dagokien jarduketa-alorraren zuzendaritza eta koordinazioa [14.1.c artikulua], hartarako xedapen orokorren proiektuak, planak, programak eta jarduera esanguratsuak sustatu ahal dituela [7.d artikulua], Garraio Plangintzaren Zuzendaritzaren eskumenen artean dagoela xedapen orokorren proiektuak lantzea eta izapidetzea bere eskumeneko gaietan [8.b artikulua].

Funtzioaren araberako eskumena.

Bestalde, goian aipatutako 11/2021 Dekretuak, urtarrilaren 19koak, 4.1 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburuari dagokio 7/1981 Legeak, ekainaren 30ekoak, Jaurlaritzari buruzkoak, 26. eta 28. artikuluetan ezarritako eskumenak baliatzea, baita sailari dagozkion jardun-arloen eta egitekoen eremuan indarrean dagoen legediak esleitzen dizkionak ere. Zehazki, arestian aipatu den artikulua [26.8 artikulua] gaitasuna ematen dio bere jardun-esparruaren barruan dauden gaiei buruzko lege-proiektuak proposatzeko, Gobernuak onar ditzan.

Aurretik aipatu dugunez, sailaren barnean, Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza duenari eta haren mende dagoen Garraio Plangintzaren Zuzendaritzari [14.4 artikulua] esleitu behar zaie ekimena; beraz, zuzendaritza horren eskumena da testu arauemailearen proiektua lantzea.

Eragina ordenamendu juridikoan.

Kable bidezko garraioa une honetan ondorengo sektore-araudi honek arautzen du: Europar eremuan, 2016/424 (EB) Erregelamenduak, 2016ko martxoaren 9koak, pertsonak kable bidez garraiatzeko instalazioei buruzkoak eta 2000/9/EE Zuzentaraua indargabetzen duenak. Estatu-eremuan, 16/1987 Legeak, uztailearen 30ekoak, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzkoak; eta zehazkiago, 4/1964 Legeak, apirilaren 29koak, Teleferikoen emakidari buruzkoak, eta, 673/1966 Dekretuak, martxoaren 10ekoak, haren aplikazio-erregelamendua onartu zuenak.

Bestalde, igogailuen araudi teknikoa eta segurtasunekoa, araudi-testuaren bigarren xedapen iragankorrak aipatzen dituenak, honako hauetan dago jasota: 2014/33/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, igogailuen eta igogailuen segurtasun-osagaien alorrean estatu kideen legeriak harmonizatzeari buruzkoa, eta 203/2016 Errege Dekretua, maiatzaren 20koa, igogailuak eta igogailuetarako segurtasun-osagaiak merkaturatzeko funtsezko segurtasun-betekizunak ezartzen dituena.

Lege-aurreproiektu hau izapidetzen da Euskal Autonomia Erkidegoak, AEren 10.32 artikuluan jasotzen duen kable bidezko garraioetarako duen eskumen eksklusiboa egikaritzuz; eta oso-osorik bere lurralde-esparruan dabiltzan kable bidezko garraio-zerbitzuen araubide juridikoa eta eskumenekoa finkatzen ditu.

Ekonomia- eta aurrekontu-eragina.

Behar den memoria ekonomikoa egingo da, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Egin asmo dagoen araua aplikatzeak eratorritako kostua aztertuko da memoria horretan, baita araua aplikatzeak EAeko aurrekontu orokorretan izan lezakeen eragina ere. Halaber, arauak beste administrazio batzuetan eta partikularretan izan dezakeen eragina aztertuko da, baita ekonomian, oro har, izan dezakeena ere.

Garraio Plangintzaren zuzendaria
Ivan Pedreira Lanchas
Elektronikoki sinatua